

Dokumentu mota: **Idatzizko galdera**

Nori zuzendua: **Osasun sailburuari**

Izapidetze organoa: **Legebiltzarreko Mahaia**

Proposatzailea: **Ibai Iriarte San Vicente**

Talde parlamentarioa: **EH Bildu**

Ekimenaren izenburua: *Tolosaldeko Asuncion Klinikako neurozirujauari ebakuntzak egiteko jarri zaion debekuaren inguruan*

## **ZIOA**

Orain gutxi jakin dugu Asuncion Klinikako neurozirujauari ebakuntzak egiteko debekua jarri diola Osasun Sailak.

Honen ondorioz, jada itxarote zerrendan dauden herritarren egoera okertu da eta minen edo bajan daramaten hilabeteak luzatzea dakar guzti honek.

Hau horrela, argibideak eskatzea komenigarria ikusi dugu

## **IDATZIZ ERAINTZUTEKO GALDERA**

Osasun Sailburuak idatziz ondorengo galderei erantzuna ematea eskatzen dugu:

Noiz kendu zaio aipatu medikuari ebakuntzak egiteko baimena? Zergatik?

Hartu al da bestelako neurririk?

Zein erantzukizun du Osasun Sailak guzti honetan? Eta Asuncion Klinikak?

Ireki al zaio espedienterik Asuncion Klinikari?

Nora deribatzen ari dira gaixoak egoera guzti honen aurrean? Zein iritzi dute deribazioa jasaten ari diren ospitaleetako arduradunek egoera honen aurrean?

Izan al da inongo komunikaziorik lehen arretako medikuekin?

Zer eta nola kudeatuko da? Zein epe aurre ikusten du egoera berriz ere “normalizatzeko”?

Gasteizen, 2022ko abenduaren 23an

Ibai Iriarte San Vicente

EH Bilduko legebiltzarkidea eta bozeramaile ordea